

BRETXAKO KIROLDEGI EGITASMOAREN INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Bretxako kiroldegia dela-eta, Udalbatzaren osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko martxoaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko Udal Gobernuak, gogor lan egin ondoren eta mota askotako eragozpenak gaindituz, Bretxako Arrandegi eraikuntzaren erabilera udalekotu zuen, inbertsiogileekin eta bertako kudeatzaileekin akordio on bat eskuratu ondoren.

Begien bistakoa da hiriaren erdiguneak eta Parte Zaharrak zerbitzu eta instalazio publikoen beharra dutela, eta aipa eremuan lursail eta guneak oso mugatuak direla horretarako, kasik ezer ere ez dagoela ez esatearren. Hori dela-eta, osasun zentroaren birkokapena lehentasun osokoa izan da eta izaten jarraitzen du. Era berean, aipa auzoek dituzten bestelako beharrak ere asebetetzeko lan egin zen azken urteotan.

Helburu horri begira, besteak beste, Kirol Patronatuak egindako txostenean kiroldegi berri bat eraiki beharra nabarmentzen zuen, kontuan hartuta Udalak eremu honetan zerbitzurik ez duela eskaintzen, auzotarren adina ere bai, eta kirol txartel kopurua auzoen artean baxuena dela.

Gauzak horrela, lehenengo lanak martxan jarri ziren, azkeneko solairua osorik zio horri begira landuz, eta hasierako zirriborroetan kirol pista, gelak, gimnasioak, aldagelak eta abar jasotzen ziren. Denbora aurrera doa eta Udal Gobernuak ez du pausorik eman norabide horretan.

Martxoaren 14ko batzordean, zinegotzi-ordezkariek osasun zentroaren kokapena zein izango den jakin arte (metro karratuak, sarrerak eta irteerak, eta abar) kiroldegi proiektua ezin dela egin esan zuen. Egia esan, osasun zentroa gauzatzeko atzerapen nabaria ematen ari da, baina horrek ez du esan nahi ezin denik kiroldegi proiektua landu. Udal Gobernuak auzotarrekin, bertako taldeekin eta Orixe ikastolarekin bat eginda, kirol programa, beharrak eta Kirol Txartelaren erdua azter dezake, denbora gehiago ez galtzeko.

Hori dela-eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

MOZIOA

1- Donostiako Udaltzaker Udal Gobernuari eskatzen dio Bretxako kiroldegi berriaren proiektua gauzatzeko eragileekin eman behar diren pausoak eta lanketak abian jar ditzala.

Donostian 2016eko martxoaren 17an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia